

Arabako Urrezko Emakumeak Alavesas de Oro



“Nire ametsik handiena
profesionala izan eta
bizitza pilotari moduan
irabaztea da”



Leire Garai (Gasteiz, 2003)

erreferentziazko esku pilotaria da Araban. Zaramagako bere klubean, 6 urte baino ez zuelarik, esku pilota aukeratu zuten lehenengoetako bat izan zen. Zenbait titulu garrantzitsu irabazi ditu, horien artean *Emakume Master Cup* delakoa, eta

ohiko parte-hartzailea da Euskadiko pilotalekuetan egiten diren emakume lehiaketetan. Europako *frontball* txapeldunorde irten berria da; esku pilotaren beste modalitate bat da, zeinean Espainiako txapelduna ere izan baita.

-Nola hasi zinen pilotan?

Nire nebarengatik hasi nintzen, berak pilotan jokatzen baitzuen ikastolan. Gero Zaramaga klubean jarraitu zuen, eta entrenatzen ikustera joaten nintzen. Animate nintzen eta hor segitzen dut. Gure ama ere federazioan sartuta dabil.

-Esku pilotan hasi zinenean, oso emakume gutxi zineten

Hala da. Bi edo hiru besterik ez ginen. Baina orain dela urte batzuk, boom bat izan zen. Neska asko gehitu ziren. 12 urte nituen, eta esan ahal dizut harez geroztik emakumezkoen esku pilota asko garatu dela. Banekien gutxi ginela baina ibili beharreko bide bat zegoela. Argi neukan egin nahi nuen kirola zela, eta aurrera jarraituko nuela. Momenturen batean eman behar zen urratsa eta, hara, orain goral-

dian dago. “Emakume Master Cup” delakoan bikote askok hartzen dute parte. Euskal Herriaz gainera, Valentzian eta Katalunian ere asko handitu da emakumezkoen esku pilota.

-“Emakume Master Cup” aipatu duzu. Dena hasi zen txapelketa izan zen?

Baietz esan nezake, ikusgaitasun handia izaten hasi zen eta. Lehenengo edizioan, finalerdiak eta finala telebistan ikusi ahal izan ziren, eta horrek oso bultzada handia eman zuen. Uste dut bidea zabaldu duela eta asko lagundu diola emakumezkoen pilotari. Egia da nire gogokoenetako bat dela titulua irabaztea lortu dudalako, baina geroz eta txapelketa gehiago egiten dira, oso egutegi polita prestatuta, hainbat lekutan jokatzen diren partida askorekin.

-Zeintzuk dira egutegiko txapelketarik garrantzitsuenak?

“Emakume Master Cup” delakoaz gainera, aipa genitzake federazioen GRAVNI txapelketa, Amorebietako Master Kaiola, Zizurko lehiaketa, Bizkaia Lehiaketa, batzuk aipatzearren.

-Non sentitzen zara erosoena, banakako ala binakako modalitatean?

Banakakoan, esango nizuke. Atseginagoa zait lau eta erdian jokatzea eta nire lagunari kalterik ez egitea. Hau da, zerbait ongi egiten ez badut, neure buruari egiten diot kalte, eta ez beste inori.

-Emakumezkoen esku pilotaren bilakaera horretan, pilota goxotik mutilek erabiltzen duten pilota berera pasatu zarete. Nola izan da prozesu hori?

Nire kasuan, mutilak pilota mistoarekin hasten diren adinetik aurrera, neuk ere hala egin nuen, eta gero ukituko pilotarekin. Nik haien ibilbide berbera egin nahi nuen, eta horrengatik erabaki nuen material berarekin entrenatzea eta jokatzea. Emakumezkoen esku pilotaren boom hori hasi eta gero, goxoarekin jokatzen genuen, baina nik jarraitzen nuen pilota gogorarekin entrenatzen. Orain dela urte pare bat, “Emakume Master Cup” delakoak pilota mistoa sartu zuen jada eta, hortik aurrera, lehiaketa askotan sartu da. Ukitukoak pixka bat denbora gehiago beharko du, baina uste dut azkenean pilota horrekin jokatuko ditugula lehiaketak. Nik gogokoagoa dut ukitukoa gogorragoa delako, frontisetik gehiago irten eta joko gehiago ematen duelako.

-Zure kirolean izan dituzun lesio gehienak eskuetakoak izan dira?

Bai. Neure kasuan, atzamar batean izan dut lesioa. Baita ere, sarritan gertatzen da “iltzea” esaten dioguna, hau da, pilota eskuan sartu eta ubeldura sortzen denean. Nik “eskuetako gaitza” gutxitan izan dut, baina sarritan gertatzen den lesio bat da kirol honetan. Eskuak gure tresna dira eta asko zaindu behar ditugu, izotzez, eta eskuak pilota goxoarekin ohitu, gogortu daitezen, eta gainera noizean behin masajistarengana joan.





-Nola bateratzen dituzu pilota eta ikasketak?

SHEEko gradua egiten ari naiz unibertsitatean. Aurten nire bigarren ikasturtea izango da. Egin nahi nuena da, eta pozik nago. Bateratu ahal izan dut. Unibertsitatean azterketaren bat aldatu behar badut lehiaketa batengatik, asko laguntzen didate. Ongi antolatuta, egin daiteke.

-Nola izan zen txapelkunordea irten zinen Europako frontball txapelketa?

Frantzian izan zen. Oso esperientzia polita. Frontball-aren diferentzia nagusiak dira txapa beherago daukala, espazioa txikiagoa dela eta pilota gomazkoa edo dela. Fisiko handia behar da. Modalitate berri samarra da.

-Zeintzuk dira zure ametsak pilotari moduan?

Askok ditut, baina, batez ere, profesionala izatea eta harekin bizitza irabaztea. Eta gero, munduko txapelketa batean parte hartu eta irabaztea. Profesionala izateko bidea oraindik ere luzea da, oraindik asko hobetu beharra dugu eta. Profesionala izatea kirolari moduan mailarik gorenera heltzea da, eta uste dut oraindik asko falta zaidala. Munduko txapelketa ez dut ikusten hain urrun. Europako frontball txapelketa batean egon naiz, eta nahi nuke berriz ere aukeratua izatea munduko txapelketa baten parte hartzeko. Ilusio handia izango litzateke niretzat, oraindik munduko esku pilota txapelketarik ez dago eta.

-Beti esan duzu Irujoren jarraitzailea zarela, baina orain erretiratuta dago. Oraingo pilotarien artean, nor duzu gogokoa?

Beti izango naiz Irujoren zalea (barreak). Baina oraingoan artean, Laso dut gogokoena. Jokatzeko duen guztietan ikusi beharra dago, asko transmititzen duelako eta oso ikusgarria delako. Gainera, pertsona bezala apartekoa da.

-Zergatik gomendatuko zenuke esku pilotan aritzea?

Ohiko kirola da, eta polita. Aitortzen dut hasieran zaila egiten dela, pilota jotzea kostatzen delako. Baina harekin ohitu eta gero, asko gozatzen duzu. Orain, neskak garai on batean gauden honetan, uste dut aukera ona dela proba egiteko. Entrenatu eta ahalegintzen badira, uste dut maila onera hel daitezkeela dagoeneko programatu eta are telebistatik ematen diren lehiaketetan parte hartzeko. ✦

Emakumezkoen pilotaren historia laburra

Emakumezkoen pilotaren hasiera 1885. urtean koka daiteke, eta Josefa Ignacia Albisuren izena du. Joxpinixi, eman zioten goitizenaz. Gipuzkoako Lazkao herriko neska bat zen, urte hartako martxoaren 8an pilota partida bana jokatu zuena emakumeek kirolerako balio zutela zalantzan jartzen zuten gizon biren kontra, eta bietan irabazle atera zen. Garaipen horren ondoren, Joxpinixi ospetsu egin zen eta bere bizitza guztia pilotari eman zion, Donostian 1950eko otsailaren 4an hil zen arte.

Urteetan zehar, kirol hau bere modalitate ezberdinetan (esku pilota, erraketa, pala) pisu handiagoa hartuz joan da Euskadin, baita emakumeen artean ere. Nazioartean aitorpen handiena lortu zutenak erraketariak izan ziren, 1917 eta 1980 bitartean Euskadiko pilotalekuetan (baina Espainia guztian eta Ameriketako herrialdeetan ere) profesional moduan aritu ziren emakumeak.

XX. mendearen hasiera aldean, emakumezkoen pilota kirol arrakastatsua baino gehiago izan zen. Erraketariak, Gizarte Segurantzaren kotizatzen



«Nazioartean aitorpen handiena lortu zutenak erraketariak izan ziren, 1917 eta 1980 bitartean Euskadiko pilotalekuetan (baina Espainia guztian eta Ameriketako herrialdeetan ere) profesional moduan aritu ziren emakumeak.»

zuten lehenengo emakume kirolariak, profesionalak izan eta, beraz, profesional kontratuak zeuzkaten eta, hainbat herrialdeetako pilotalekuak bete zituzten, hala nola Espainian, Kuban, Filipinetan, Estatu Batuetan edo Mexikon, non gaur egun oso kirol ezaguna baita. Hango pilotari ospetsuenetako bat Daniela Vargas da, Euskadin egin den "Emakume Master Cup"en edizioaren batean parte hartutakoa. Hala eta guzti ere, kirol honen aitzindariak, "Txikita de Anoeta", Agustina Otaola edo "Txikita de Ledesma", besteak beste, gaur egun erabat ezezagunak dira. Batzuek diote denboraren joanak bere lana egin zuela joko hori galtzeko, eta beste batzuek, berriz, Espainian 1939tik 1975era arte izan diktadurari leporatzen

diote. Eta askok gaineratzen dute frankismoak emakume pilotari askoren profesionaltasun ametsa zapuztu zuela, berrogei urte geroago ez baitute lortu kirol horretatik profesional gisa bizitzea, esku pilotan ez ezik, beste modalitate askotan ere, palan esate baterako.

Euskal Herritik kanpora egin ziren lehenengo pilotalekuetako bat Madrilgoa izan zen, Ildefonso Anabitarte Anza pilotari ohia eta enpresaburuari esker. 1917ko urtarilean inauguratu zen Madrid pilotaleku ezaguna, Cedaderos izena ere eman zitzaiona. Garai hartan, lehenengo aldiz euskal erraketarien partidak sartu ziren programan. Jokalari haien ondoan, gizon pilotariak ere izaten ziren.

Espainiako gerra ondoko garaia izan zen emakume pilotariak bultzada handiena jaso zuten unea. 1943an, 734 neska pilotari izan ziren, Espainia guztian zeuden 1.432 pilotarien artean; hau da, erdia baino gehiago pilotan egiten zuten emakumeak ziren. Nabarmenezkoa da emakume askok beste modu batean bizitza irabazi beharra izan zutela gerra zibilaren ondoren.

1957an, Moscardó jeneralak ez zeritzon ongi emakumeek kirol horretan aritzeari. Kontrako protestek bere erabakian atzera egitera behartu zuten, baina ez zuten galarazi lizentzia berriak emateko eta pilotaleku berriak irekitzeko debekua ezartzerik. Eta ez zen han gelditu. Izan ere, emakume pilotariak behartu zituen blusa luzeagoak eta orkatiletarainoko gona eramatera, eta horrela oso zaila zen kirolean aritzea.



Madrid pilotalekuan 1980ra arte jarraitu zen partidak jokatzeko. Hala, amaiera eman zitzaion Madrillgo leku hartan jokatu zen sei hamarkadari, eta oroimenean geratu dira jokatuak partidak eta lehiaketak, edo Anabitartek berak 1929an hartutako erabakia, emakumeek lehengo tenis piloten orde zurrutakoak erabiltzekoa.

2015ean, dokumentalen eta film laburren Bilboko nazioarteko zinemaldian, Andrés Salaberria Pueyo eta Daniel Burgui Iguzkiza zuzendariek 'Las pelotaris' izeneko film laburra aurkeztu zuten, euskal pilotan egiten duten emakumeen buruzko dokumentala. Kontakizunaren gaia gutxi ezagutzen den kirol xume bat da, nabarmenki gizonezkoa

(edo hala uste da), zeinean emakume batzuek, ilusioz eta ahalegin handiekin, beren bizimodua bilatzen saiatu diren eta saiatzen diren.

Film labur bihurtutako dokumental horretan jorratzen dituzten gaietako bat emakumeek pilotalekuetan izan duten bilakaera da, erraketariak Euskal Herrian ez ezik mundu zabaleko herrialde askotan hainbesteko garrantzia izan zuten 60 urtean zehar. Alde horretatik, haietako askok profesional kontratuz jokatzeko zuten, eta batzuek diru asko irabazi zuten. Hala ere, garai harez gero, emakumeek presentzia eta eskubideak irabazi zituzten gizartean, baina aldi berean haiek galduz joan ziren pilota jokoa.

Beste alde batetik, esku pilotak olinpiar joko batzuetan izan zuten presentziaren datu jakingarria dago. Gertaera historiko hori Bartzelonan 1992an egin ziren olinpiar jokoetan izan zen, bertan pilota erakusketa-kirola izan baitzen, eta Ruben Beloki eskulari nafarrak irabazi zuen urrezko domina. Rosa Maria Flores Buendia mexikarra, bere aldetik, herrialde harentzat urrezko domina irabazi zuen lehenengo emakumea izan zen.

Emakumeen pilotaren historian, Maite Ruiz de Larramendiren izena topatzen dugu. 2010ean, gizonen nahiz emakumeen kategoriatan pilotaririk onena izendatu zuten, bere kirol merezimenduengatik aukeratuta urte hartan Frantziako Paue hirian jokatuak Munduko Euskal Pilota Txapelketan parte hartu zuten hainbat herrialdeetako 500 kirolariren artean. Aldi berean, Rosa Maria Flores mexikarra ere aurkitzen dugu, herrialde harentzat urrezko domina irabazi zuen lehenengo emakumea, edo Maider Mendizabal gipuzkoarra, munduko 13 txapelketatan parte hartu eta urrezko 4 domina, zilarrezko 5 eta brontzezko 4 irabazi dituen. Gainera, Emakume Pilotarien Elkartearen lehendakaria da.



Emakumeen pilotaren historian atzera begiratuz gero, topatuko ditugu Maria Antonia Uzkudun "Txikita de Anoeta" (bere garaiko hoberena irizita zegoen eta, ideia bat izan dezagun, 500 pezetara irabazten zituen jokatuak partidako), Agustina Otaola eta "Txikita de Ledesma", kirolari handiak, XX. mendean pilotari profesional moduan jokatu ahal izan zutenak. Ezin dezakegu ahaztu aurretik aipatuak Josefa Ignacia Albu, Joxpinixi goitzenaz ezaguna, 1885ean emakumeen balioa zalantzat hartzen zuten bi gizonen kontra jokatu zuena esku huskako pilota partida banatan, eta bietan garaile atera zena.

Garai hartako beste jokalariek batzuk dira Eugenia Iriondo "Eibartarra", Quintita, Mary, Carmencita "La Bolche", Carmenchu Sánchez, Rosita Arregi, Eladia Altuna, Eugenia Iriondo, Gloria Agirre 'Txikita de Aizarna', María Luisa Senar, Conchita Bustindui, Olga Cazalis, Rosa Soroa, Agustina Otaola, María Luisa Alberdi, Maria Carmen Lasagabaster, Lucia Areitoaurtene, Julita, Mari eta Milagros Beraza ahizpak, eta Maria Elena Hernández. ✦

Arabako pilotara hurbildu nahi baduzu

Jar zaitez harremanetan
Arabako Pilota Federazioarekin



**FEDERACIÓN ALAVESA
DE PELOTA**
ARABAKO PILOTA
FEDERAZIOA

Amadeo García
de Salazar plaza, 2
01007 Vitoria-Gasteiz, Araba
945 13 05 72

fapv@pilotaraba.eus
www.pilotaraba.eus



dxtfem.com/alava/

**EL SITIO QUE TE INFORMA SOBRE
EL DEPORTE FEMENINO EN ARABA**

**ARABAKO NESKEEN KIROLARI
BURUZKO LEKU**



Kirol Zerbitzua
Servicio de Deporte

araba álava
foru aldundia diputación foral



web.araba.eus/eu/kirola